

**MATTIN TREKU,
"Mattin pertsularia"**

(1916-1981)

Lapurdiko Ahetze herrian, laborari seme sortu zen Mattin Treku 1916 an.17 urtetako hasia zen ostatu eta plazetan pertsu jokoan. Ez zuen etxetik urrun denbora hartan Mattin Irabola Senpereko pertsulari ezaguna. Baina 1940-1945.eko gerla ondoan, hasi zen oroz gainera, T. Hernandorenak sustatutrik, bere burua bazter orotan ezagutarazten. Etxetik urrun, Ameriketaraino zabaldu zen beraren eta, beronen adiskide Xalbador Urepeldarraren omena. Mugaren Hegoaldean ere badute Iparraldeko bi pertsulari lagunek zenbait itzuli eginik eta zenbait irripar gozo edo gogoeta sakon ezpain bihotzetan jauzarazirik.



Mattin Treku
(1916-1981)

Aita Zavalak, *Auspoa* liburu sailean argitaratu zuen *Ahal dena*, Mattinen lehen liburua (1971). Bigarrena agertzen digun unean, *Ene xokotik kantari* (1981) Mattin bera, zorigaitzez itzalia zaigu bere Ahetzeko sorterrian, joan den udaminean uztaillaren betean.

P. Xarritton

MATTINEN OMENEZ

Ahetzen zaigu zendu Mattin txoria,
txori kantari bizkor adoretsua,
irriparrez beterik barrenge sua,
euskaldun jende orok dugun zoria.

Gorpuari dario alai bertsua
—Nigarrik ez atera, erranik zinez,
alegera zaitezte irri eginez,
goibeltasuna date arrunt antzua.

Herria du beteko bere irrintzinez
urretxindorrak ere iratzarririk,
oihartzuna edonon indar berdinez.

Erneko du ostera gogo berririk
haizeak oro hatsez txertaturikan.
Ezin guk ur onari galdu egarririk.

Aulestin, 1981-VII-24

Alfonso Irigoien